



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko urriaren 29a

56 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Legea, Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio goi karguen bateraezintasunei buruzkoa. Osoko Bilkurak Onetsia (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Kolonbiako bertako herrien egoerari buruzko aldarrikapen politikoa. Bozeramaleen Batzarrak onetsia (8. or.).
—Mozioa, Diputatuen Kongresua eta Gobernuaren esportazioari buruzko funtsezko datuak argitaratzera premiatzen dituen, «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak aurkeztua. Atzera bidalitako mozioa (8. or.).

G SAILA:

Jakinazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia (9. or.).
—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko (13. or.).
—Alberto Catalán Higuera jaunaren baja Nafarroako Parlamentuko Bigarren Idazkari karguan (16. or.).
—Biltzarreko Mahaiko Bigarren Idazkari kargua hautatzea (16. or.).
—Hezkuntza eta Kultura Batzordearen ordezkari bat izendatzea, Hezkuntzako Batzorde Nagusirako (17. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arau Emaileak:

—296/1996 Foru Dekretua, uztailaren 29koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea partez aldatzen duena. Osoko Bilkurak berretsia (18. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1996ko urriaren 24an egindako Osoko Bilkuran, onetsi egin zuen Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legea.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikulua xedatuakoarekin bat, Foru Lege hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko urriaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikulua dioenez, foru araubidea dela eta, Nafarroak du eskumen osoa, beste gai batzuen artean, Foru Erakundearen osaketa, eskurantzak, antolakuntza, jardunbidea eta araubide juridikoa arautzeko, baita Foru Diputazioaren, haren Administrazioaren eta haren menpeko ente publikoen araubide juridikoa ere.

Eskumen horren arabera, Nafarroako funtzionarioen gaineko araudiak ezartzen du funtzionarioen bateraezintasunen araubidea.

Hala ere, oso eskas araututa dago goi karguen bateraezintasunen araubidea apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legean, Gobernuko Lehendakaria eta kontseilariak eta zuzendari nagusiak soilik ukitzen baititu.

Beraz, sektore publikoaren funtzionamendu zorrotz eta objektiboa bermatzeko arau bat ezarri beharra dago zorrotzasun eta objektibotasun hori

bermatzearren, Foru Legearen maila izan eta Nafarroako Parlamentuko erabateko gehiengoak onetsi behar duena, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikulua babesean, Gobernuko Lehendakariaren eta kontseilarien estatutuan eragina izanen baitu.

Foru Legeak egitura soila du eta goi karguen erabateko dedikazioa eta eskusiboa aldarrikatzen du haien karguetan, beste jarduera publiko batzuetan, bateragarriak nahitaez, edo pribatuetan independentziarik galdu gabe ari daitezen galarazi gabe.

Horretarako goi karguaren kontzeptua zehaztu da ukitutako erakunde eta entitateen egituraren arabera, eta aitorpenen edukia ezarri da, bai jarduerena bai ondasun eta interesena, beste administrazio batzuetarako agindutakoaren parekoa, ahalik eta argitasun handiena ematearren ukitutakoei eta erakunde fiskalizatzaileei.

Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioiko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroa sortu da eta kudeatuko duen unitate organikoa izendatu, inpartzialtasuna eta independentzia bermatzeko.

Azkenik, zehapen ahalmenari buruzko kapituluaren arau batzuk biltzen dira, legea hautsiz gero, ahalik eta zigor handiena eman eta prozedurak ebazteko organo eskudunen independentzia bermatzen dutenak.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

Foru Lege honek Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko gainerako goi karguen jarduera bateraezintasun erregimena eta interesen kontrola arautzen ditu, baita hari lotuta edo haren menpe diren zuzenbide publikoko entitateetakoena ere.

2. artikulua. Goi karguaren definizioa.

Foru Lege honetarako, goi karguak dira:

- a) Nafarroako Gobernuko edo Foru Diputazio-ko Lehendakaria eta kontseilariak edo foru diputatuak.
- b) Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren eta kontseilariaren kabineteetako kideak, administrariak izan ezik.
- c) Foru Komunitatearen Administrazio-ko zuzendari nagusiak eta maila organiko bereko lanpostuetako titularrak.
- d) Izendapen libreko lanpostuetako titularrak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko erakunde autonomoetan, nahitaez funtzionarioek bete beharrekoak izan ezik.
- e) Foru Komunitateko sozietate publikoetako zuzendari nagusiak eta zuzendari kudeatzaileak.
- f) "Radio Televisión Navarra" Ente Publikoko zuzendari nagusia.
- g) Behin-behineko beste edozein langile, foru araudiaren arabera.

3. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Foru Lege honen aplikazio eremuaren barreneko goi karguek erabateko dedikazioan beteko dituzte beren eginkizunak eta ezin izanen dira batera aritu, ezta orderko edo ahaldun baten bidez ere, beste edozein lanpostu, kargu, ordezkari-tza, lanbide edo jardueratan, publiko zein pribatu izan, beraien gain edo besteren kontura, eta, halaber, ez dute beste lansaririk jasoko administrazio publikoetako edo horiei lotutako edo menpeko entitateetako aurrekontuen kargura, ezta jarduera pribatu batetik zuzenean edo zeharka datorren beste saririk ere.

Aurreko lerroaldean xedatutakoak ez ditu 5 eta 6. artikuluetan adierazitako salbuespenak galarazten.

2. Foru Lege honen aplikazio esparruko karguak betetzen dituzten pertsonak ez dute, ez beraiek ezta ezkontidearekin edo haien menpeko seme-alabekin eta tutoretzapeko pertsonekin ere, ehuneko hamarra edo gehiago jotzen duen partaidetzaren titularitatekin izanen foru, toki edo Estatu-ko sektore publikoarekin edozein eratako hitzarmen, konbenio edo kontraturik duten enpresetan.

Foru Lege honetako 2. artikuluan aipatu lanpostuetako bat betetzeko izendatuak, idazati honen aurreko lerroaldean adierazitako moduko partaidetzarik badu, bi hilabeteko epean utzi beharko du, izendatu eta biharamunetik aitzina.

Karguan ari dela, oinordetza bidez eskuratzen badu partaidetza, eskuratu eta lau hilabeteko epean utzi beharko du.

Partaidetza hori eta ondoko transmisioa ere Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazio-ko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroan deklaratu dira, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.

3. Goi karguren bat dutenak behartuta daude gai batean aritzeaz inhibitzeraz, baldin eta gai horretan jardun badute edo gai hori enpresa edo sozietateren bati interesatzen baldin bazaio, eta goi kargua dutenek edo haren ezkontideak edo laugarren gradu zibil arteko senitartekoren batek, aipatu enpresa edo sozietatearen zuzendaritza, aholkularitza edo administrazioan parte hartu badute. Inhibizioa idatziz egingo da, behar bezala adieraz eta agertaraz dadin, eta goi karguaren mailaz goragoko hurbilenari edo izendatu zuen organoari jakinaraziko zaio.

4. Kargua utzi eta ondoko bi urteetan goi karguek ezin izanen dute jarduera pribatuetan aritu, karguan zeudenean haiekin zerikusia duten espedienteetan ebazpenik eman bazuten, ezta laguntza teknikorako, zerbitzuko edo antzeko kontraturik egin ere administrazio publikoekin.

Foru Lege honen aplikazio esparruko goi karguren batean aritu direnek, aurreko lerroaldean adierazitako epearen barrenean, zein jardueratan aritzeko gogoia duten haren gaineko berri eman beharko diote Foru Lege honetan ezarritako jarduera eta interesen Erregistroari. Erregelamendu bidez finkatuko dira berri emate horren nondik-norainokoa eta edukia.

II. KAPITULUA

Jardueren araubidea

4. artikulua. Kargu publikoaren ondoriozko jardueretik bateragarritasuna.

Goi karguaren eginkizunak betetzea bateragarria da jarduera hauekin kargu publiko gisa:

- a) Instituzio izaeraz dagozkion beste kargu batzuk betetzea edo karguagatik izendatua izan bada.
- b) Administrazio publikoetako organo kolegiatuetako buru, kide edo idazkari izatea, kargua dela eta eginkizun horiek bete behar dituzten.
- c) Kargu edo eginkizunak betetzea herrialdez gaindikotako organizazio eta biltzarretan.
- d) Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari izatea erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta sozietate pribatuen zuzendaritza

organoetan edo administrazio kontseiluetan, bere kargua dela eta edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak parte hartzen duen entitateetan beroriek izendaturik.

e) Foru Parlamentarioaren kargua betetzea Nafarroako Parlamenturako Hauteskundeei buruzko Foru Legeak ezarritako kasuetan.

5. artikulua. Sari ekonomiko bateragarriak kargu publiko gisa.

1. Kargu publiko gisa goi karguan aritzearekin bateragarri diren jarduerak galarazi gabe, ez du karguaren lansariaz aparte beste sari ekonomikorik jasoko, honako hauek salbu:

a) Egin behar dituen bidaia, egonaldi eta lekualdatzeen gastuen kalteordaina, indarra duen araudiari jarraituz.

b) Bertaratzeagatik, araudia aplikagarrian ezarrita dauden zenbatekoak.

Sozietate publikoetako administrazio kontseiluetan ez da saririk jasoko bi baino kontseilu gehiagotan parte hartzeagatik.

c) Zein Administrazio Publikotatik datorren haren legeriak onartzen dizkion ordainsari bateragarriak, goi karguak eszedentzia berezian edo zerbitzu berezietan diren funtzionarioak direnean.

2. Edozein kontzepturen bidez jaso behar ez diren zenbatekoak sortuz gero, aurreko zenbakian adierazitakoari jarraituz, dagokien kontuan sartuko ditu zuzenean ordaintzen dituen erakundeak, eta hori ezinezkoa bada, hartzaileak berak, jaso eta hamabost eguneko epean.

6. artikulua. Jarduera pribatu bateragarriak

Goi kargu batean aritzea bateragarria da jarduera pribatu hauekin, baldin eta horietan aritzeagatik goi karguaren inpartzialtasuna edo independentzia galarazten ez badira eginkizuna betetzerakoan:

a) Ondare pertsonala edo familiarena administrazio hutsa.

b) Literatura, arte, zientzia edo teknika arloko produkzio edo sorkuntza lana eta horren ondoriozko argitalpenak, baita hizlari gisa biltzar, mintegi, lan jardunaldi, hitzaldi edo lanbideko ikastaroetan tarteka parte hartzea ere, enplegu harreman edo zerbitzu emate baten ondorioz ez diren bitartean edo bere eginbeharrak betetzea galarazten ez badute.

c) Irabazi asmorik gabeko kultur edo ongintzako entitateetan parte hartzea, inongo ordainsari edo irabazirik jaso gabe.

III. KAPITULUA Kudeaketa, zaintza eta kontrola

7. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioiko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroa.

1. Foru Lege honetan xedatutakoa bete dadin sortu da Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioiko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroa.

2. Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioiko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroa publikoa da, eta haren datuetan sartzeko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 37.6 artikulua araberan, Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatua arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoan, Foru Lege honetan eta garatuko duten xedapenetan ezarritakoari jarraituko zaio.

8. artikulua. Kudeaketa organoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak kudeatuko du goi karguen jarduera eta interesen Erregistroa. Organo horrek independentzia osoa izanen du bere gaineko organoetatik eta beste edozeinetatik Erregistroa zaindu eta kudeatzeko.

2. Beren eginkizunak direla eta, Erregistroko datuetan sartzeko diren langileek zainduko dute hura, eta behartuta egonen dira datuak isilpean gordetzera, baita beren eginkizunei utzi eta gero ere.

3. Aurreko zenbakian xedatutakoa axolagabe hartu edo hautsiz gero, hutsegite oso larria izanen da eta arau administratibo aplikagarrien bidez zehatuko da, ekar ditzakeen erantzukizun penalak galarazi gabe.

9. artikulua. Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioiko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroko datuetan sartzeari.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioiko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroko datuetan sartzetik izanen dute:

a) Nafarroako Parlamentuak, bere Erregelamenduak ezarriko duenari jarraituz, eta Kontuen Ganbarak, bere Foru Lege arau-emaeleak ezartzen duenari jarraituz.

b) Organo judizialek, Erregistroan diren datuak ezagutzea beharrezkoa denean prozesuak instrui-

tu edo ebazteko, auzibideen gaineko legeetan xedatutakoari jarraituz.

c) Ministerio Fiskalak, ikerketa lanean dabiltzan bere eginkizunak betetzen, Erregistroko datuak ezagutzera behartuta dagoenean.

2. Datuen eskaera idatziz egiten zaio Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari, argi azalduz zein den goi kargua, zein datu eskatzen diren eta eskaeraren arrazoia.

Berehala igorriko dira datuak, haien segurtasuna bermatuz.

10. artikulua. Informazioa Nafarroako Parlamentuari.

Foru Lege honetan aurreikusitako bateraezintasun araubidearen kontrola gardena izan dadin, eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak dituen eskumenak baztertu gabe, Nafarroako Gobernuak, sei hilabetetik behin, haren bitartez igorriko du informazioa Nafarroako Parlamentura goi karguek aitortzea egiteko obligazioa nola bete duten eta Foru Lege honen aurka egin diren arau-haustekak eta ezarri diren zehapenak ere adieraziz.

IV. KAPITULUA Goi karguen obligazioak

11. artikulua. Jardueren gaineko aitortzea.

1. Goi karguak behartuta daude aitortzea beraiek egindako jarduerak, nahiz ordezkari edo ahaldu bitartez egindakoak, baita, 3. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, karguak utzitakoan egiteko gogoia dituztenak ere, Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuak eta Administrazioak goi karguen jardura eta interesen Erregistroan, Foru Lege honen 7. artikuluan aipatu bezala, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

2. Aurreko zenbakian aipatu aitortzea goi kargua hartu edo utzi eta ondoko bi hilabeteko epean egiten da, inongo luzapenik gabe, baita interesatuak Foru Lege honek araututako jardueraren batean hasten den aldiro ere.

3. Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak aitortzea aztertu eta, akats formalik atzemanaz gero, zuzendu dezan eskatuko dio interesatuari.

12. artikulua. Ondasun eta eskubideen aitortzea.

1. Goi kargu direnak behartuta daude haien ondasun, eskubide eta obligazio guztiak hartzen dituen ondarearen gaineko aitortzea egitera Erregistroan, erregelamendu bidez ezarriko den moduan. Haien ezkontideek ere egin beharko dute aitortzea hori, eta goi karguak aurkeztuko du.

Ondarearen gaineko aitortzearen gutxienez honako hauek sartuko dira:

a) Diturten ondareko ondasun, eskubide eta obligazioak.

b) Finantzako balore edo aktibo negoziagarriak.

c) Sozietateetako partaidetzak.

d) Zein sozietateetan dituzten interesak, haien xede soziala, edozein motatutakoak direla ere.

e) Partaidetza izateagatik c) atalaren arabera aitortzearen sartu beharreko sozietateak, xede sozialak adieraziz.

2. Artikulu honen lehen idazatian aipatu aitortzea goi kargua hartu edo utzi eta ondoko bi hilabeteko epean egiten da, luzapenik gabe, baita urtero ere, ekainean.

3. Hasierako aitortzei eta urtero egiten direnei azken zerga aitortzearen kopia erantsiko zaie, aitortzaileak Zerga Administrazioan aurkeztu behar izan duen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena eta Ondarearen gaineko Zerga Bereziarena, alegia. Zerga horiei buruzko ezkontidearen aitortzea ere aurkeztu beharko du. Aitortze horiek Erregistroan gordailatuko dira informazio osagarri gisa eta, eskuratzeko, arau berariazkoari jarraituko zaie.

4. Goi karguen jardura eta interesen Erregistroan jasoko dituzten aitortzeak eta kopiak eta, akats formalik atzemanaz gero, zuzen dezan eskatuko dio interesatuari.

13. artikulua. Balore eta aktibo finantzieroen kontrola eta kudeaketa.

1. Foru Lege honen aplikazio esparruko pertsonak baldin badute kontrol-, ikuskapen- zein arautze-eskumenik merkatu antolatuan negoziagarri diren baloreak edo bestelako aktibo finantzieroak jaulkitzen dituzten merkataritza-sozietateen gainean, eta pertsona horiek, edo legez banaturik ez dauden haien ezkontideek, edo emantzipatu gabeko adin txikiko seme-alabek, balore edo aktiboaren titularrak baldin badira, Balore Merkaturaren Batzarre Nazionalean erregistraturiko erakunde finantziero bat kontratatu beharko dute aipatu balore edo aktiboaren kudeaketa eta administrazioarako. Kudeatzeko aginduak karguan dirauen bitartean jarraituko du, eta baita kargua utzi eta ondorengo bi urteetan ere.

Xede horretarako kontratatzen den entitateak eramango du aurrera administrazioa, kontratuan ezartzen diren arrisku eta errentagarritasun jarraitbide orokorreari lotuko zaielarik, eta ezin izango die

interesatuei inbertsiorako argibiderik eskatu, ezta inbertsiorako argitasunik jaso ere haiengandik. Ezin izango diote, ezta ere, bere inbertsioak nola osatzen diren azaldu, ez badira inbertsio kolektiboko erakundeak, edo eta, justifikaturiko arrazoiak medio, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimena ematen ez badu.

Interesatuaren erantzukizunaren kaltetan gabe, entitateak aipatu betebeharrak ez betetzea arau-hauste oso larritzat joko da, entitate finantziera den aldetik aplikagarria zaion zehapen erregimenaren ikuspuntutik.

2. Interesatuek honako hauei emango dizkiete izenpeturiko kontratuen kopiak: Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari eta Gobernuari goi karguen jardueren Erregistroari, idazpena egin dezan, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari.

V. KAPITULUA Zehapen ahalmena

14. artikulua. Arau-hausteak.

1. Foru Lege honetarako, arau-hauste oso larriak dira:

a) 3. artikuluan aipatzen diren bateraezintasun arauak ez betetzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari kalte nabaria egin bazaio edo norberaren ondarean edo hirugarren pertsonen onura gertatu bada.

b) Foru Lege honetan ezarritakoaren arabera aurkeztu behar diren datu eta dokumentuen faltsutasuna.

2. Arau-hauste larriak dira:

a) 3. artikuluan aipatu bateraezintasun arauak ez betetzea.

b) Foru Lege honetan ezarritakoaren arabera aurkeztu behar diren datu eta agiriak ez aurkeztea.

c) Erregistroan jarduerak eta ondareko ondasunak ez aitortzea, hartarako ohartarazi ondoren.

d) Bi arau-hauste arin egitea urtebetean.

3. Arau-hauste arina da:

Jarduerak edo/eta ondareko ondasunak ez aitortzea Erregistroan, ezarritako epeen barrenean, datuak zuzentzeko eskatu eta aitortzen direnean.

15. artikulua. Zehapenak.

1. Arau-hauste oso larriak eta larriak zehatzeko Foru Lege hau bete ez izana deklaratu da. Oso larrietan, deklarazio hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

2. Hutsegite arinak agirika eginez zehatzeko Foru Lege hau ez betetzeagatik.

3. Foru Lege honetan xedatutakoak ez ditu galarazten behar diren gainerako erantzukizunak. Horretarako, beste erantzukizun batzuetarako aztarnak agertzen direnean, Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoari agindua emanen zaio behar diren ekintzak aurrera eramanez.

Arau-hausteak delitu izan badaitezke, Administrazioak Ministerio Fiskalari igorriko dio erru lekukoa eta prozeduran segitzeari utziko dio harik eta agintaritza judizialak zigor auzibidea amaituko duen ebazpena eman arte.

16. artikulua. Neurri osagarriak.

1. Edozein direla ere ezartzen diren zehapenak, arau-hausleek itzuli egin beharko dituzte bidegabe hartutako zenbatekoak, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

2. Nafarroako Gobernuak Lehendakaria eta kontseilariak salbu, organo eskudunak kenduko ditu kargutik arau-hauste oso larria egiteagatik zehatzak izan direnak, zehapenaren irmotasunetik hasita, hilabeteko epean.

3. Arau-hauste larriagatik zehatz gero, ebazpenean zehaztu ahalko da bidezkoa den arau-hauslea goi kargutik kentzea ala ez.

4. Artikulu honen 2 eta 3. zenbakien arabera kargutik kendutakoak ezin izanen dira goi kargu bat hartzeko izendatu hirutik hamar urte iragan arte, arau-haustea oso larritzat hartzen bada, edo hiru urte arte, larritzat hartuz gero.

Neurri hori graduatzeko, interes publikoari egingdako kaltea, jokaerak hiritarrentan sortzen duen eragina eta jarduera bateraezinetan aritzeko dirua bidegabe hartu den edo ez baloratuko da.

17. artikulua. Zehapen prozeduraren aurreko jarduketak.

1. Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, edozein zehapen espediente hasi aurretik, jarduketak erreserbatuak egin ahalko ditu espedienteari ekiteko inguruabarrak ba ote den zehaztearen.

Jarduketan hasiera jakinaraziko zaio interesatuari.

2. Organo hori Foru Lege honen ustezko ez betetzeengatik egin daitezkeen salaketez ere arduratuko da.

3. Fitxategi, agiritegi edo erregistro publikoek eta, bereziki, zerga administrazioek eta Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaile eta zerbitzu amankomunek informazioa, datuak eta laguntza

emanen dituzte, hala eskatzen zaienean, Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatu arautzen duen Lege Organikoan ezarritako moduan edo behar adinako pribatutasun eta konfidentzialtasunaz, datu informatikoak ez direnean.

4. Informazio erreserbatua amaiturik, artikulua honen 1. zenbakian adierazitako organoak 19.1 artikuluan aipatu organoei igorriko die egindako jarduketan txostena.

18. artikulua. Zehapen prozedura.

Zehapen prozedura Foru Dekretuaren bidez ezarriko da, indarreko lege-hatsapenekin bat etorri eta Foru Lege honek ezartzen dituen xedapenen arabera.

19. artikulua. Zehapen prozedurako organo eskudunak.

1. Nafarroako Gobernua izanen da zehapen prozedura irekitzeko organo eskuduna, Lehendakari eta Barne Kontseilariak proposaturik, ukitutako goi kargua gobernukide bat denean. Ukitutako goi kargua Lehendakari eta Barne Kontseilaria bada, apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeko 46. artikuluan ezarritako ordenan hurrengo den kontseilariak egingen du proposamena.

Gainerako goi karguen kasuan, Lehendakari eta Barne Kontseilariak irekiko du prozedura, non ez den goi kargua kontseilari horren menpekoa, orduan hurrengo kontseilaria izanen baita organo eskuduna, apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeko 46. artikuluan ezarritako ordenaren arabera.

2. Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak instruituko ditu espedienteak.

3. Zehapen espedienteen ebazpena artikulua honen 1. zenbakian adierazitako organoei beraiei dagokie.

20. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko IX. tituluaren ezarritakoa da Foru Lege honetan aurreikusitako arau-hauste eta zehapenak preskribitzeko araubidea.

Xedapen Gehigarriak

Lehenbizikoa. Bateriaezintasunen iraupena.

Foru Lege honetako aginduak aplikatu egingen dira, zenbait kargutarako, haien eginkizunen berezitasuna dela eta, ezarritako bateraezintasun edo obligazioek iraun dezaten galarazi gabe.

Bigarrena. Sozietate publikoen obligazioak.

Sozietate publikoek Erregistroa kudeatzen duen organoari jakinaraziko diote zein lagun hautatu eta izendatzen dituzten haien zuzendaritza organoetarako, Foru Lege honetako 2. artikulua ukitzen baditu, baita Foru Lege honetako 5.1 artikuluan adierazitako kontzeptuengatik esleitutako sari ekonomikoak ere.

Xedapen Iragankorra

Foru Lege honetako 2. artikuluan adierazitakoaren arabera gaur egun goi kargu bat dutenek, jarduera eta ondasun eta eskubideei buruzko aitorpena aurkeztu beharko dute, 11 eta 12. artikuluetan adierazitako moduan, Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernu eta Administrazioaren goi karguen jarduera eta interesen Erregistroaren funtzionamendua arautzen duen Foru Dekretuak indarra hartu eta bi hilabeteko epean.

Xedapen Indargabetzailea

Indarrik gabe geratzen da 27. artikulua, Foru Komunitateko Gobernua eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legean, baita maila bereko edo txikiagoko beste edozein foru arau ere, Foru Lege honetan xedatutakoaren aurka badago.

Azken Xedapenak

Lehenbizikoa. Nafarroako Gobernuak bi hilabeteko epean garatuko ditu Foru Lege honen 8. eta 18. artikuluetan xedatutako edukia eta nondik-norakoa eta Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernu eta Administrazioaren goi karguen jarduera eta interesen Erregistroaren funtzionamendurako Erregelamenduak onetsiko ditu, baita goi karguen jarduera eta interesen aitorpena egiteko ereduak ere. Orobat, zehapen prozedura.

Bigarrena. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatzeko behar diren arau guztiak eman ditzan.

Hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunean hartuko du indarra.

E Saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Kolonbiako bertako herrien egoerari buruzko aldarrikapen politikoa

BOZERAMALEEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaleen Batzarrak, 1996ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Kolonbiako bertako herrien egoerari buruzko hurrengo Aldarrikapen politikoa onetsi zuen:

“Mahaiak eta Bozeramaleen Batzarrak joan den 1996ko urriaren 14an bilera egin zuten eta bilera hartan parte hartu zuen Caucaoko Bertako Erregioen Kontseiluko Batzorde Eragileko kide batek, Kolonbian Bertakoen Komunitateen egoerari buruzko argibideak eman zituelarik.

Bozeramaleen Batzarrak, jakinarazi zaion Kolonbiako Bertakoen Komunitateen egoeraren nolakoa ikusirik, erabaki du:

1.- Kolonbiako Bertakoen Komunitateekin bere elkartasuna adieraztea, aitortzen duelarik herri hauek eskubidea daukatela Kolonbiako Errepublikako antolamendu-egituraren barruan herri bereizirik irauteko.

2.- Komunitate hauen banakako nortasuna eta berezitasun kultural zein sozialen babesa berrindar dezakeen edozein ekimenaren aldeko jarrera adieraztea, baita haien guztien ohiturazko eskubideak zain ditzakeen ekimenaren aldeko jarrera ere. Alde honetatik, geure aldeko jarrera adierazten diogu Bertakoen Erakundeari, honek egiten baitu Kolonbiako herrien nortasuna aitortzearen

aldeko lana, oinarrizko giza eskubideak begiratze-ko lehen eta funtsezko hatsapena dena, baita nork bere kultura izatearen aldeko eta berau garatzeko toki izatearen aldeko lana ere. Halaber, erakunde honek bizi-baldintza orekatuen aldeko lana egiten du, berauek beharrezkoak direlako nor bere ohiturei, hezkuntza-balorei eta bizimoduko martxa berezkoei jarraikiz bizi ahal izateko.

3.- Kolonbiako Errepublikako agintariei bertako herriekin eta nazioarteko erakundeekin izenpetu dituzten erabakiak bete ditzaten premiatzea, baita honako aldarrikapen konstituzional hau bete dezaten premiatzea ere: Kolonbiako herri guztien batasun politikoa eta lurralde-batasuna berrezarriko dituen entitate amankomun baten alde azaltzen dena, hain zuzen ere.

4.- Garapen bideetan dauden herrientzako laguntzak programatzeko eskumenak dituzten erakundeei eskatzea aintzat har dezaten bertako herrien aurrerapenaren aldeko kontusailik izendatzea, beti ere norberaren baliabideak eta herri hauen baitatik sortzen diren proiektuak kontuan hartuz.”

Iruñean, 1996ko urriaren 21a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa, Diputatuen Kongresua eta Gobernua armen esportazioari buruzko funtsezko datuak argitaratzera premiatzen dituen

ATZERA BIDLITAKO MOZIOA

Nafarroako Parlamentuak, 1996ko urriaren 24an eginiko Osoko Bilkuran, «Eusko Akartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak Diputatuen Kongresua eta Gobernua armen esportazioari buruzko funtsezko datuak argitaratzera premiatzen dituen mozioa atzera bidali zuen. Mozio hori

1996ko urriaren 23ko 55 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko urriaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 21ean egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatu-tuan ezarritakoaren babesean, eta Nafarroako Parlamentuak Legelari Kidegoari dagokionez daukan beharrari aurre egiteko,

ERABAKI DA:

Lehen. Legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia onestea. Haien hautapena ondoren aipatzen diren oinarriekin bat eginen da.

Bigarrena. Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1996ko urriaren 22a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

1. Oinarria. 1. Legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako dei egiten da. Zerrenda horrek 1996-1999 urteetan behar diren aldi baterako kontratazioak egiteko balioko du.

2. Parlamentuak zerrenda hori darabilenean, Biltzarraren eta hautatzen diren pertsonen arteko harremana aldi baterako administrazio kontratuaren bidez burutuko da, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Langileen Estatutuko 4.2 artikuluan ezarritakoarekin bat. Kontratuak Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 8.1 artikuluan aipatzen diren eginkizunak izanen dituzte.

3. Zerbitzuen prestazioaren erregimena Biltzarraren Legelariendako ezarritakoa izanen da.

2. Oinarria. Hauta-probetan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izanen da betebeharrak hauek betetzea:

a) Espainiako hiritartasuna izatea.

b) Adinez nagusia izatea.

c) Zuzenbide Lizentziatuen titulu ofizialaren jabe izatea.

d) Bere eginkizunetan jarduteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Funtzio publikoetan jarduteko ezgaitua edo gabetua ez izatea eta Administrazio Publiko baten zerbitzuetik berezia ez izatea.

3. Oinarria. 1. Oposizio-lehiaketa honetan parte hartzeke eskaerak Nafarroako Parlamentuko Lehendakari andreaki igorri behar zaizkio eta, eskabide gisa, erantsitako eredu ofizialari jarraiki, Parlamentuko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, lanegunetan, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu biak arte, Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun naturaleko epearen barruan.

2. Hautagaiek izen-deiturak, adina, helbidea, jakinarazpen ondorioetarako, eta telefonoa, hala bada, azalduko dituzte, baita bigarren Oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen dituztela ere, beti ere eskabideak aurkezteke ezarritako epea bukatzen den egunean, eta, kontraturik gertatuz gero, eskaturiko betebeharrak dituztela frogatzen dituzten agiriak aurkeztuko lituzketela.

3. Halaber, eskabidearekin batean, alegaturiko merezimenduen zerrenda eta horiek frogatzen dituzten agiriak aurkeztuko dira, Deialdi honetako 6. Oinarrian ezarritakoarekin bat sailkatuak.

4. Oinarria. 1. Eskabideak aurkezteke epea bukatuak, Parlamentuko Lehendakariak onartu

eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, Nafarroako Parlamentuko Iragarki Oholean ikusgai jarriko dena. Zerrenda horretan onarturiko hautagaien izen-deiturak agertuko dira.

2. Interesatuak, bi laneguneko epearen barnean, egoki deritzeten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka.

3. Erreklamazioetarako epea bukatuta eta, hala bada, horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behinbetiko zerrenda onetsiko du, Nafarroako Parlamentuko Iragarki Oholean ikusgai jarriko dena.

5. Oinarria. 1. Hona hemen hauta-probak zuzenduko dituen Epaimahaiko kideak:

– Mahaiburua: M^a Dolores Eguren Apesteguía andrea, Nafarroako Parlamentuko Lehendakaria.

– Joaquín Salcedo Izu jauna, Parlamentuko Bigarren Lehendakariorde eta Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbidearen Historiako Katedraduna.

– Martín María Razquin Lizarraga jauna, Biltzarreko Legelari Nagusia.

– Autonomi Elkarte bateko Parlamentuko edo Gorte Nagusietako Legelari bat, Mahaiak izendatzeko.

– Pablo Díez Lago jauna, Biltzarreko Legelaria, Epaimahaiko Idazkari lanetan arituko dena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, hala bada, behar diren ordezkioak izendatuko ditu.

2. Epaimahaia 1996ko azaroan osatuko da. Epaimahaia ez du osatzerik izanen, ez eta jarduterik ere, bertan haren kideen gehiengo osoa ez badaude.

3. Epaimahaia gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sor litezkeen afera guztiak.

4. Mahaiakideek ez dute esku sartu beharko eta Mahaiari jakinarazi beharko diote, Araubide Juridiko eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko Legeko 28. artikuluan aurrikusiriko gora-beherak gertatzen direnean.

6. Oinarria. Lehiaketaldian, alegaturiko merezimenduak honela sailkatu eta puntuatuko dira:

A) Ikasketa merezimenduak.

Atal honetan Zuzenbide Lizentziatuko ikasketan izaniko kalifikazioak, Lizentziatura proba edo Doktoretzako Ikastaro Monografikoak, Doktoretza eta bestelako ikasketa merezimenduak ere baloratuko dira.

B) Parlamentuetako Erakundeetan edo Administrazio Publikoetan emaniko zerbitzuak.

Atal honetan Parlamentuetako Erakundeetan eta Administrazio Publikoetan eman edo aitorturiko zerbitzuak baloratuko dira, lanpostu horietako Zuzenbide Lizentziatuaren titulua eskatu bada, batean emaniko zerbitzuak ezin kontutan hartuko direlarik. Urteengatik puntu erdi bana emanen da.

C) Lanbide kurrikuluma:

Atal honetan hautagaien lanbide historiala baloratuko da: lanpostuak eta buruturiko jarduerak.

Epaimahaia lanbide historiala neurtuko du eta bereziki kontutan hartuko ditu beteriko lanpostuen kategoria eta garrantzia, haietan sartzeko zailtasuna eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak eta haren Langileen Estatutuak Legelariari esleitzen dizkieten eginkizun juridiko berak edo antzekoak benetan betetzea.

Hautagaiak bere lanbide kurrikuluma aurkeztu beharko dute, baita ezabaturik ez dagoen diziplina zehapenik ezarri ez zaiela dioen edo, hala bada, haren edukiaren berri ematen duen zinpeko aitorpena ere.

D) Bestelako merezimenduak:

Atal honetan argitarapenak, emaniko ponentzia eta hitzaldiak, hizkuntzak, hobekuntza ikastaroak, eta beste edozein merezimendu baloratuko dira, hautagaiak azaldu eta frogatu badituzte eta Epaimahaia kalifikatzea egoki baderitze.

Lehiaketaldiko kalifikazioa hautagai bakoitzari 0tik 20 puntu bitarteko puntuazioa emanaz egingen da, epigrafe bakoitzerako honako puntuazio baremo honen arabera:

A) 5 puntu, gehienez ere.

B) 5 puntu, gehienez ere.

C) 5 puntu, gehienez ere.

D) 5 puntu, gehienez ere.

7. Oinarria. 1. Lehiaketaldia bukatu eta gero, Epaimahaia egindako balorazioaren emaitza Nafarroako Parlamentuko Iragarki Oholean jendaurrean paratuko du, hautagai bakoitzak lortu duen puntuazioaren berri emanaz. Halaber, eta gutxienez hiru laneguneko aurrerapenarekin, oposizioaldiko probak zer egunetan egingo diren jakinaraziko da. Hautagaiak Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute proba horretara.

2. Oposizioaldiko frogak ariketa hauek osatuko dituzte:

1. Proba teorikoa, idatziz erantzun beharko zaielarik, gehienez 3 orduan, Epaimahaiak Oinarri hauen II. Eraskinean datozen gaiekin zerikusirik duten galdera bati edo biri.

2. Praktikoa, Irizpen bat idaztea izango dena. Irizpena Nafarroako Parlamentuak bere dituen eskumenekin eta funtzionamenduarekin zerikusirik duten gaiet buruzkoa izango da.

Ariketa praktikoa hau egiteko hautagaiak gehienez ere 3 ordu izango dituzte, eta denbora horretan beraiek ekarritako lege-testuak (komentatu gabeak) begiratzen ahalko dituzte.

3. Oposizioaldia honela kalifikatuko da:

1. Ariketa teorikoa: 20 puntu, gehienez ere.

2. Ariketa praktikoa: 20 puntu, gehienez ere.

Oposizioaldiko ariketetako bakoitza kanporagarria izango da, ariketa bakoitzean gutxienez ere hamar puntu lortzen ez dituzten hautagaiak baztertuta geldituko direlarik.

8. Oinarria. 1. Oposizioaldiko ariketen irakurketa jendaurrean egingo da.

2. Oposizioaldiko ariketek honako arau hauek beteko dituzte: idatziz egingo dira, eta hautagaiak idazten bukatu duten unean, idatzi dituzten folioak gutunazal batean sartuko dituzte, eta gutunazal horren hegalean izenpetuko dute, bai hautagaiak eta bai Epaimahaiko bi kideak. Gutunazal hauek idazkariak gordeko ditu.

Behar den unean, zozketan ateratzen den alfabeto-hurrenkeraren arabera, hautagaiak izenpetu dituen gutunazalak irekiko ditu Epaimahaiaren aurrean eta idatzi dituen folioak irakurriko ditu.

Oinarri honek dioena betetzen ez duten hautagaiak eskubiderik gabe geldituko dira.

3. Epaimahaiak Nafarroako Parlamentuko Irargari Oholean iragarriko ditu ariketen emaitzak.

9. Oinarria. 1. Merezimenduak ikusi ondoren eta oposizioaldiko ariketei nota eman eta gero, Epaimahaiak gaintu dutenen zerrenda egingo du, puntuaziorik gehien dutenengandik hasi eta gutxien dutenenganaino ordenaturik.

2. Epaimahaiak jendaurrean iragarriko du gaintu dutenen zerrenda, berau Nafarroako Parlamentuko Irargari Oholean paratuz.

3. Zerrenda egiterakoan puntuazioetan berdinketarik gertatuz gero, berauek oposizioaldian puntuaziorik gehien atera duen hautagaiaren alde ebartziko dira.

10. Oinarria. 1. Mahaiak, kontrataziorik egin behar badu, gaintu dutenen zerrendako ordenari jarraikiz egingo da. Horretarako, kontrataziorako proposatzen den hautagai gaintuak aurkeztuko ditu Parlamentuko Erregistro Nagusian, kontratazioaren jakinarazpenaren ondorengo hamar egun naturalen barruan, ondorengo agiri hauek:

a) Jaiotze-aktaren egiaztagiria, edo Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia kautotua.

b) Administrazio Publiko baten zerbitzutik aldendua izan ez dela eta funtzio publikoa egiteko ezgaiturik edo gabeturik ez dagoela dioen zinpeko aitopena.

c) Eskatzen den tituluaren edo egindako ikasketak akademikoaren egiaztagiriaren kopia kautotua edo fotokopia (jatorrizkoarekin batera aurkeztu beharko dena kautotzeko), edo eta berau eskuratzeko eskubideak ordaindu direlako egiaztagiriak.

d) Halaber, eginkizunak aurrera eramatea galarazten duten gaisotasuna edo akats fisikoa ez izatearen egiaztagiria ere aurkeztu beharko da, Mahaiak adierazten duen sendagileak edo Era-kundeak emanda.

2. Aurreko ataletan aipatzen diren agiriak ezin daitezkeela aurkeztu behar den bezalako arrazoiez justifikatzen bada, Zuzenbidean onartzen den edozein frogaren bidez egiaztatu ahalko da deialdian parte hartzeko eskatzen diren betebeharrak betetzen direla.

3. Finkatutako epearen barruan, eta ezinbesteko arrazoiak tartean ez daudelarik, agiriak aurkezten ez baditu, hautagaia ezin izango da kontratatua izan, hasierako eskaeran egin duen faltsutasunarengatik erantzukizunaren kaltetan gabe. Kasu honetan, kontratazio-proposamena deialdiko 9. Oinarrian aipatzen den zerrendan ondorengo puntuaziorik handiena atera duenaren alde egingo litzateke.

11. Oinarria. Deialdiaren, oinarri hauen eta bere ekintzen aurka administrazioarekiko errekurtsioa jarri ahalko da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko dagokion Salan bi hilabeteko epean, Bilzarreko Mahaiari jakinarazi eta gero.

I. ERASKINA

_____ j/ak, __ urte dituenak, _____
N.A.N. daukanak, helbidea jakinarazpen ondorio-
etarako _____(n), _____ kalean,
__ zenbakian, __ pisuan, _____ posta kodea
duenak eta _____ telefonoa duenak,

ADIERAZTEN DU:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdiaren berri jakinik (.....ko ... zenbakia duen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik) eta hartan parte hartu nahian, erantsiriko agirian, Hirugarren Oinarrian ezarritakoekin bat, alegatzen diren merezimenduak biltzen dituela, behar bezala antolaturik, baita horiek frogatzen dituzten agiriak eta, haiekin batean, doakion lanbide kurrikuluma ere.

2. Deialdiko bigarren Oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak biltzen dituela, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean.

3. Izendatua bada, konpromezua hartzen duela deialdiko hamargarren Oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko, kontratua izenpetzean.

Hori horrela, zuri

ESKATZEN DIZU, izkribu hau aurkeztutzat emanda, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketan onar dezazula.

Iruñean, 1996koaren(e)an

(Izenpea)

II. ERASKINA

1. Konstituzioa arau juridikoa den aldetik. Konstituzioen tradiziozko edukia. Arau kontsistentzialak interpretatzeko irizpideak. Legeen interpretazioa Konstituzioaren arabera.

2. Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratiko kontzeptua.

3. Aniztasuna eta alderdi politikoak. Alderdi politikoaren estatus juridikoa gaur egungo demokrazietan.

4. Espainiako hauteskunde-sistema. Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskunde orokorrak. Komunitate Autonomoetako Legebiltzarretarako hauteskundeak. Espainiako hauteskunde-sistema. Sufragio eskubide aktiboa eta pasiboa. Hauteskunde-administrazioa.

5. Estatu eta Komunitate Autonomoen legeeskuduntza. Marko-legeak eta armonizatzeko legeak.

6. Oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen teoria. Politikan parte hartze eskubidea eta kargu publikoetan sartzeko eskubidea. Babes judizialerako eskubidea. Berme prozesalak.

7. Konstituzio Auzitegia. Osaketa eta egitura. Jurisdikzioa eta eskumenak. Arauen kontrol abstraktoa: konstituziokontraatasuneko errekurtsioa. Konstituziokontraatasunaren auzia. Anparo errekurtsioa

8. Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa: berau egiteko prozesua. Izaera eta esanahia. Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa erreformatzeko jardunbidea.

9. Nafarroako Parlamentua edo Gortea. Aurrekariak. Osaketa eta egitura. Foru Parlamentariak: eskubideak eta betebeharrak; izaera eskuratzeko eta galtzeko. Nafarroako Parlamenturako hauteskunde-sistema.

10. Nafarroako Gobernua edo Foru Diputazioa. Aurrekariak. Eginkizunak eta eskuduntzak. Gobernu kideak.

11. Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioko Lehendakaria. Hautaketa. Foru Parlamentuaren aurrean Gobernu Lehendakariak duen erantzukizuna. Zentsura mozioa. Konfiantza botoa.

12. Nafarroako Foru Komunitatea: eskumenak banatzeko sistema.

13. Foru Komunitateko Administrazioa. Antolaketa. Ekintza eta xedapenen erregimena. Errekurtsioen sistema.

14. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua. Egitea, erreforma, egitura eta interpretazioa. Bere aurrekontua onartzeko eta betetzeko Biltzarren finantza-autonomia.

15. Lehendakaritza eta Biltzarretako Gobernu Organoak. Sistemarik garrantzizkoenak. Mahaia eta bere esanahi tekniko eta parlamentu-esanahia. Lehendakarien konferentzia eta bere esanahia. Bozeramaleen Batzarra. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea gai hauetan.

16. Parlamentari Taldeak eta esanahi konstituzionala. Taldeen antolaketa. Taldeen sistemak Biltzarren antolaketan eta funtzionamenduan duen oihartzuna. Nafarroako zuzenbidea gai hauetan.

17. Legegintza-eginkizuna. Legegintza-ekimena. Motak. Emendakinak: kontzeptua, motak, baldintzak. Legegintza-jardunbide orokorra eta legegintza-jardunbide bereziak. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea gai hauetan.

18. Parlamentuaren eginkizun ekonomikoa. Aurrekontuak onartzea. Parlamentuko izapidearen espezialitateak. Parlamentuak aurrekontuaren betetzea kontrolatzea. Nafarroako Kontu Orokorraren izapidetzea. Parlamentuek kredituen gain

dituzten mugak: dirusarrerak gutxiagotzea zein kredituak handiagotzea eskatzen duten emendekin eta lege proposamenak. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea gai hauetan.

19. Exekutiboa kontrolatzeko jardunbide espezifikoak. Galderak eta jabeldurak. Ikerketa Batzordeak. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea gai hauetan.

20. Parlamentuaren ekintzak. Motak: proposamena, ebazpenak eta mozioak. Bere erregimen juridikoa.

21. Parlamentuko eztabaida. Sistemak. Hizpi-dea erabiltzea. Aipamenak. Ordena gordetzeko eta gaiari lotzeko deiak. Parlamentuko gizabidea. Eztabaida gure Parlamentu Zuzenbidean: bilakae-ra eta gaurko egoera.

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 21ean eginiko bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

“**Lehena.**- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia onestea. Haien hautapena ondoren aipatzen diren oinarriekin bat eginen da.

Bigarrena. Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1996ko urriaren 22a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Deialdi honen oinarriak ondoko hauek izanen dira:

1. oinarria.- Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu huts lekualdatze-lehiaketa bitartez betetzea.

1.2. Deialdi honen bidez izendatutako izangoen Biltzarreko funtzionarioentzat ezarritako eginkizunak bete eta eskubide eta betebeharrak izango dituzte eta, zehazki, Gelazain Kidegoarendako ezarriak.

1.3. Lanpostuak D mailari dagozkion lansariez hornituko dira, indarra duten xedapenekin bat.

1.4. Lanaldia goizez eta arratsaldez izanen da, Parlamentuko eskudun organoek noiznahi alda dezaketelarik.

1.5. Deialdi honen xede den lanpostuen kopurua gero gehitu ahal izanen da, Epaimahai kalifikatzaileak lehiakideen zerrenda, ateratako puntuazioaren arabera, deialdia egin duen organoari igortzen dion egunean hutsik dauden lanpostuak bete arte.

2. oinarria.- Hautagaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileriaren Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu horiek lekualdatze lehiaketa bidez hornituko dira. Lehiaketa honetan parte ahal izanen dute Kontuen Ganbarako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio funtzionario guztiak, beti ere jardunean edo Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuko 24.1. artikularen j) eta l) ataletan zehaztu zerbitzu berezietan baldin badaude eta eskabideak aurkezteko epea amaitu orduko honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) D mailaren barneko funtzionarioa izatea.

b) Eskola Graduatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketa edo haien baliokidea den tituluaren jabe izatea. Betebehar hau ordeztetzeko ahal da, frogatzen bada eskaturiko maila Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuko 15. artikuluan aipatzen den maila-igoeraren bidez lortu dela.

c) D mailako gelazain edo mandatari lanpostu baterako izendatua izatea.

2.2. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. Oinarrian ezarritako epe eta eran egiaztatu beharko dira. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko

epea amaitzen den egunean, hautapen prozesuak diraeueino eta izendatu arte bete beharko direla ulertuko da.

3. oinarria.- Eskakerak.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera, eskabide gisa, deialdi honetan argitaratutako ereduari lotua, aurkeztu beharko dute, eta bertan ondoko hau azaldu:

a) Izen-deiturak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta, baldin balu, telefonoa, eta deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazten duen aitortpena. Azken hori frogatzeko, ziurtagiriak erantsi beharko dira.

b) Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. Eraskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta beraien egiaztagiriak.

3.2. Eskabideak Nafarroako Parlamentuko Lehendakari Andre Txit Garaiari zuzenduko zaizkio, eta lanegun eta lanorduetan aurkeztuko dira Parlamentuko Erregistro Nagusian, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epearen barruan.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

4. oinarria.- Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko. Zerrenda horretan onartutako izangaien izen-deiturak agertuko dira.

4.2. Interesatuak egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Ezarritako epearen barruan eskabiderik aurkeztu ezean, Parlamentuko Lehendakariak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Hautagai bakarra ere onartuko ez balitz, lehiaketa eman gabe utziko litzateke.

5. oinarria.- Epaimahai kalifikatzailearen osaketa, eraketa eta jarduketa.

5.1. Hona hemen merezimendu lehiaketa epaitu behar duen Epaimahaia osatuko dutenak:

Mahaiburua: Joaquín Salcedo Izu jauna, Nafarroako Parlamentuko Bigarren Lehendakariordea.

Ordezkoa: Fermín Ciáurritz Gómez jauna, Nafarroako Parlamentuko Lehen Idazkaria.

Mahaikideak:

– Martín María Razquin Lizarraga jauna, Parlamentuko Legelari Nagusia, Epaimahaiko idazkari lanetan arituko dena.

Ordezkoa: Pablo Díez Lago jauna, Nafarroako Parlamentuko Legelaria.

– María Jesús Martínez Orduña andrea, Nafarroako Parlamentuko Gelazaina, Langileen Batzarrak izendatua.

Ordezkoa: Antonio Ansorena Urriza jauna, Nafarroako Parlamentuko Gelazaina, Langileen Batzarrak izendatua.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epearen barruan eratu beharko da.

Horretarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.3. Jardun ahal izateko, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, Mahaiburuak kalitatezko botoa erabili ahal izanen duelarik.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, Epaimahaiak ebatziko ditu, apezlazorik gabe.

6. oinarria.- Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Alegatu eta egiaztatutako merezimenduak deialdi honen I. Eraskinean azaldu baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu Epaimahaiak.

6.2. Alegatutako merezimendu guztiak agirien bidez frogatu beharko dira, izangaiek lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu duten unean.

6.3. Epaimahaiak ezin izanen du, inolaz ere, alegatu eta agirien bidez frogatu ez den merezi-

mendurik baloratu, ezta atal bakoitzean zehaztu gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

7. oinarria.- Izangaien zerrenda ordenatua eta lanpostuen esleipena.

7.1. Lehiatzaile guztien merezimenduak baloratu ondoren, Epaimahaiak izangaien zerrenda, lorturiko puntuazioaren arabera, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igorriko dio eta honek, hala behar izanez gero, hasieran deituriko lanpostuen kopurua gehitzeari buruzko Ebazpena eman eta zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara ematea aginduko du.

7.2. Biltzarreko Mahaiak puntuaziorik altuena lortu duten izangaiei emanen dizkie lanpostuak eta haien izendapenak Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen aginduko du.

8. oinarria.- Lanpostuaren jabetza hartzea.

8.1. Izendatutako izangaiek, izendapenari buruzko Erabakia jakinarazi eta ondoko hamar egun naturaleko epearen barruan, hartu beharko dute lanpostuaren jabetza.

8.2. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duten lehiakideek lehiaketaren jarduketetatik sortutako eskubideei uko egiten dizkietela ulertuko da, eta hala izanik, lanpostuak aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengo diren izangaiekin beteko dira.

9. oinarria.- Errekurtsoak.

Nafarroako Parlamentuko Langileriaren Estatutuko 6. artikuluan ezarritakoarekin bat, deialdi honen aurka administrazioarekiko errekurtsoa paratu ahalko da Nafarroako Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean.

I. ERASKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

1. Ikasketa tituluak.

– Eskola Graduatua titulua, Lehen Mailako Lanbide Heziketa titulua edo haien baliokidea: puntu bat.

– Goi Mailako Batxilergoa, Bigarren Mailako Lanbide Heziketa edo haien baliokidea: puntu eta erdi.

– Unibertsitatera Bideratzeko Ikastaroa edo haren baliokidea: bi puntu.

– 25 urtetik goitikoendako Unibertsitatean Sartzeko Ikastaroa: puntu bat.

– Karguari dagozkion eginkizunei buruzko prestakuntza ikastaroak: bi puntu, gehienez ere.

Merezimendutzat alegatzen eta baremoan espreski baloratzen diren lerrun akademiko handiagoko beste batzuk lortzeko haien jabetza ezinbesteko baldintza bada, tituluak ez dira baloratu.

1. atal honi dagokion puntuazioa ez da 5 puntutik gorakoa izanen.

2. Parlamentuko Administrazioan eta Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuak.

a) Nafarroako Parlamentuko, Kontuen Ganbarako edo Foru Komunitateko Administrazioan, nomina eta plantilako funtzionario edo lan kontratatu finko gisa, gelazain edo mandatari lanpostuan, lanpostura merezimendu lehiaketaren, oposizio-lehiaketaren edo oposizioaren bitartez sartu bada: urteko 0,25 puntu .

– Idem, idem, merezimendu lehiaketaren, oposizio-lehiaketaren edo oposizioaren bitartez sartu ez bada: urteko 0,15 puntu .

– Bestelako Administrazio Publikoetan, nomina eta plantilako funtzionario edo lan kontratatu finko gisa, gelazain edo mandatari lanpostuan, lanpostura merezimendu lehiaketaren, oposizio-lehiaketaren edo oposizioaren bitartez sartu bada: urteko 0,20 puntu .

– Idem, idem, merezimendu lehiaketaren, oposizio-lehiaketaren edo oposizioaren bitartez sartu ez bada: urteko 0,10 puntu .

b) Deialdi honetakoa ez beste lanpostutan emaniko zerbitzuak, hala bada, a) ataleko lerroalde egokiari koefiziente murriztaile hauek aplikatuz puntuatuko dira:

A maila (edo goi mailako titulazioa): 0,55.

B maila (edo erdi mailako titulazioa): 0,50.

C maila (edo Goi Mailako Batxilergoa edo haren baliokidea): 0,45.

D maila (edo Eskola Graduatua edo haren baliokidea): 0,40.

E maila (edo Eskolatze Ziurtagiria): 0,35.

c) Aldi baterako edo bitarteko izaeran, edo behin-behineko lan edo administrazio kontratua izanik, emandako zerbitzuak, nomina eta plantilako funtzionario edo lan kontratatu finkoek eginda koak bezala puntuatuko dira, baina haiek %30 murriztuak.

Beste zerbitzuren batzuekin batera emandakoak eta deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren ondotik emandako zerbitzuak ez dira kontutan hartuko.

Hezkuntza eta Kultura Batzordearen ordezkari bat izendatzea, Hezkuntzako Batzorde Nagusirako

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 1996ko urriaren 2an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen:

1.- Pedro Eza Goyeneche jauna izendatzea Hezkuntza eta Kultura Batzordearen ordezkari Hezkuntzako Batzorde Nagusirako.

2.- Erabaki honen berri ematea Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1996ko urriaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

H Saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

296/1996 Foru Dekretua, uztailaren 29koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea partez aldatzen duena

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1996ko urriaren 24an egindako Osoko Bilkuran, 296/1996 Foru Dekretua, uztailaren 29koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea partez aldatzen duena, berrestea erabaki zuen. Dekretu

hori 1996ko irailaren 11ko 49 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko urriaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



BOLETIN OFICIAL DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

BOLETIN DE SUSCRIPCION

Nombre

Dirección

Teléfono *Ciudad*

D. P. *Provincia*

Forma de pago:

Transferencia o ingreso en la cuenta corriente de la Caja de Ahorros de Navarra, número
2054/0000 41 110007133.9

| | |
|---|---|
| <p>PRECIO DE LA SUSCRIPCION</p> <p>BOLETIN OFICIAL Y DIARIO DE SESIONES</p> <p>Un año 5.700 ptas. Precio del ejemplar Boletín Oficial 125 » . Precio del ejemplar Diario de Sesiones 160 » .</p> | <p>REDACCION Y ADMINISTRACION</p> <p>PARLAMENTO DE NAVARRA</p> <p>«Boletín Oficial del Parlamento de Navarra»</p> <p>Arrieta, 12, 3º</p> <p>31002 PAMPLONA</p> |
|---|---|